

## **COP 26**

### **DENBORA AGORTZEN ARI ZAIGU, JUSTIZIA KLIMATIKOA ORAIN!**

Azaroaren 1etik 12ra, aurreikusitako datatik urtebetera, munduko agintariak berriro bilduko dira Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko Aldeen 26. Konferentzian, COP26an, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen organo gorenean, oraingoan Glasgoven. 1995etik hogeita sei konferentzia joan dira, eta bost 2015eko Parisko Akordiotik, non berotze globala +2 °C-tik oso behera mugatzeko helburua adostu zen, eta +1,5 °C ez gainditzeko ahalegin handiak egitea. Goi-bilera hau partziala izango dela salatu nahi dugu, Hegoalde globaleko herrialdeen partaidetza oso txikia izango baita –horiek ari dira ondorioak gehien jasaten–, ezarritako murrizketengatik eta txertoen eskasiagatik.

Aurreko 25 goi-bileretako akordioak gorabehera, neoliberalismoak bizitzaren eta gizartearen euskarriak suntsitzen jarraitzen du, eta urtero markak hausten dira berotegi-efektuko gasen isuriei dagokienez. Horregatik, planetaren batez besteko tenperatura, dagoeneko, industria aurreko aroan baino 1,1 °C altuagoa da. Horrela, aldaketa klimatikoa errealitate saihestezina bihurtu da, eta haren ondorioak ez dituzte etorkizuneko belaunaldiak jasango; gu gara hurrengo belaunaldia. Horren adibide dira, besteak beste, biodibertsitatearen galera, gero eta ohikoagoak diren muturreko fenomenoak –bero boladak, lehorteak, uholdeak, suteak...–, permafrosta eta glaziarrek urtea, uzta-galerak eta errefuxiatuen aurkako apartheid globala. Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldearen (IPCC) epe motzeko aurreikuspenak beldurgarriak dira.

Klima larrialdiarekin batera, erregai fosil eta material merke eta ugarien aroa amaitzen ari da. Energia iturri berriztagarriak beharrezkoak dira deskarbonizaziorako, baina IPCCk ohartarazi digunez, ezingo dute gure egungo kontsumoa bermatu, are gutxiago hazkundera. Horregatik, klima larrialdia arazo sozial eta globala da, agerian uzten ditu ekoizpen- eta kontsumo-sistema kapitalista osoaren gabeziak. Etengabeko hazkunderaren logikak talka egiten du planetaren mugekin eta gehienon beharrianekin, eta klima-aldaketa hazkundera zentzugabe horren albo-ondorioetako bat da. Erro sakoneko arazo horri aurre egiteko, ez da nahikoa azaleko aldaketak egitea; energia- eta material-kontsumoa murriztu behar da, hazkundera ekonomiko globalaren helburua alde batera utzita.

Berotze globala saihestezina da, baina ezin dugu arintzeko konponbideak atzeratzen jarraitu. Orain, hamarren bakoitza borrokatzea da erronka, 2100. urterako 1,5 °C-ko berotzea ez gainditzeko, eta trantsizio ekologiko eta soziala bultzatzeko. Klima aldaketaren ondorio larrienak saihesteko bidean, Iparralde globaleko herrialdeok erantzukizun handia dugu; are handiagoa bertako eliteek. Esaterako, 2018an 8,7 tona CO<sub>2</sub> isuri ziren Euskal Herriko biztanle bakoitzeko, EBko (8,6 t) eta munduko (6,6 t) batez bestekoaren gainetik; munduko % 10 aberatsenak, bestalde, isurketa guztien erdia sortzen du.

Hori guztia dela eta, COP26ko kideei eta estatuko, erkidegoetako eta tokiko gobernuei eskatzen diegu larrialdi klimatikoko adierazpenen erosotasuna alde batera uzteko, eta ekintzara jotzeko. Premiazkoa da material- eta energia-kontsumoaren murrizketa demokratikoki planifikatzea, bidezkoa izan dadin. Horretarako, ondorengo neurriak proposatzen ditugu:



- Erabili eta botatzeko kontsumoa eta zaharkitze programatua alde batera uztea. Konponketak eta lotutako enpleguak sustatzea.
- Herritar guztien aukerak bermatzea oinarritzko diru-sarrerak eta zerbitzu publiko iraunkorrak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, zaintza, energia, elikadura, aire eta ur garbiak...) eskuratzeko.
- Lanaldia murriztea, enplegua banatzea eta bizitzarako ezinbestekoak diren ordaindu gabeko lanen banaketa bultzatzea.
- Mugikortasun iraunkorrerako politikak sustatzea, oinez, bizikletaz eta garraio publikoz egindako joan-etorriak lehenetsiz, eta alferrikako desplazamenduak murriztuz, errepideen beharra ez areagotzeko.
- Autokontsumoa eta tokiko energia-komunitateak sustatzea, energia berriztagarrietan oinarrituta.
- Desberdinkeriarekin amaitzea, aberastasuna birbanatuz eta zerga-politika progresiboak ezarriz.
- Klima-aldaketan erantzukizunik handiena duten enpresei diru-laguntzak emateari uztea.
- Mirari teknologiko faltsuak saltzeari uztea (hidrogenoa, zentral nuklearren belaunaldi berria, karbonoa harrapatu eta biltegitratzea...).
- Hazkunde ekonomikoaren bidea alde batera uztea. Kapitalismoa da krisi klimatikoaren sorburua, eta ez da irtenbidea izango, berdez margotu arren (greenwashing, 3.0 industria, CO2 isurketen merkatua...).
- Hondakinen kudeaketan, murrizteari, berrerabiltzeari, birziklatzeari eta konpostatzeari lehentasun osoa ematea, klima-larrialdiaren eragile diren gasen isurketa handia sortzen duen erraustea baztertuz.

Klima larrialdiak, borroka globala izanik ere, tokian tokiko erantzunak behar ditu. Izan ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu ageri-agerian uztea hemen, gurean, Euskal Herrian, egiten diren hondakin-, biodibertsitate-, lurralde antolaketa-edota energia-politikek larrialdi-egoera globalarekin zerikusi zuzena dutela. Politika horiek iraunkorra ez den eredu ekonomiko eta sozial batean sakontzera bideratuta baitaude, eta, horrela, larrialdi klimatiko eta ekologikoa areagotu baino ez baitute egiten. Norabide-aldaketa sakona behar dugu, trantsizio justu baterantz. Eta garbi dago ezin dela trantsizio justurik egin baldin eta aldaketa egoera honetara ekarri gaituzten esku berberetan uzten bada. Eta, hain justu, bertako agintariak horixe egiten ari dira, esaterako, pandemiatik suspertzeko europar funtsak jasotzeko lehen-lehen lerroan Iberdrola edota Repsol bezalako enpresak jartzen dituztenean.

Beraz, norabide-aldaketa sakona behar dugu, eta hori ez da posible izango baldin eta euskal jendarte aktiborik ez badago. Horregatik, COP26 dela eta, Euskal Herriko hainbat sektoretako talde eta elkarteak erantzunak antolatzen ari gara. Beharrezkoa da, eskualdez eskualde, klima larrialdiaren kausak areagotzen dituzten enpresa eta gobernuak salatzea, agintariei benetako aldaketak eskatzea, eta bestelako gizarte eredu baterako bidean antolatzea. Klima-aldaketari aurre egitea justizia klimatikoko ekintza bat da Hegoaldeko gizarteekiko, historian zehar Iparralde industrial eta kolonialak beren baliabideak lapurtu baitizkie, eta elkartasun-ekintza bat da etorkizuneko belaunaldiekiko.

**DENBORA AGORTZEN ARI ZAIGU, JUSTIZIA KLIMATIKOA ORAIN!**



## **COP 26**

### **¡NO HAY TIEMPO, JUSTICIA CLIMÁTICA YA!**

Entre los días 1 y 12 de noviembre, un año después de la fecha inicialmente prevista, los dirigentes mundiales volverán a reunirse en la 26.ª Conferencia de las Partes de la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático, COP26, el órgano supremo de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático, esta vez en Glasgow. Llevan veintiséis conferencias desde 1995, y cinco desde el Acuerdo de París de 2015, donde se acordó el objetivo de limitar el calentamiento global muy por debajo de +2 °C y realizar grandes esfuerzos por no superar +1,5 °C. Denunciamos que esta será una cumbre parcial, con muy escasa presencia de los países del Sur global –quienes más están sufriendo las consecuencias–, por las restricciones impuestas y la falta de vacunación.

Manifestamos que, a pesar de los acuerdos de las 25 cumbres anteriores, el neoliberalismo sigue destruyendo los soportes de la vida y de la sociedad, y que cada año se siguen batiendo récords en las emisiones de gases de efecto invernadero. Por ello, la temperatura media del planeta es ya 1,1 °C más alta que en la era preindustrial. Así, el cambio climático ya es una realidad, y sus efectos no son solo algo que sufrirán las futuras generaciones, sino que ya los estamos sufriendo. Ejemplos de ello son la pérdida de biodiversidad, los fenómenos extremos cada vez más frecuentes –olas de calor, sequías, inundaciones, incendios...–, el deshielo del permafrost y de los glaciares, las pérdidas de cosechas o el apartheid global contra los refugiados. Las previsiones a corto plazo del Panel Intergubernamental sobre Cambio Climático (IPCC), publicadas recientemente, son escalofriantes.

La crisis climática viene acompañada del final de la disponibilidad abundante de combustibles fósiles y de algunos materiales. Las fuentes de energía renovable son necesarias para la descarbonización, pero tal y como nos advierte el IPCC, no pueden garantizar nuestro consumo actual y, mucho menos, el crecimiento. Por ello, la emergencia climática es un problema social y global que pone de manifiesto las carencias de todo el sistema capitalista de producción y consumo. La lógica del crecimiento continuo choca con los límites del planeta y con las necesidades de la mayoría, y el cambio climático es uno de los efectos colaterales de este crecimiento insensato. Para hacer frente a este problema de raíz profunda, no basta con introducir cambios superficiales; hay que reducir el consumo energético y de materiales, abandonar el objetivo de crecimiento económico global.

No podemos seguir retrasando las soluciones para mitigarlo. Ahora, el reto es luchar cada décima para no superar el calentamiento de 1,5 °C para el año 2100 e impulsar la transición ecológica y social. En el camino de evitar las consecuencias más graves del cambio climático, los países del Norte global tenemos una gran responsabilidad; aún mayor sus élites. Por ejemplo, en 2018 se emitieron 8,7 toneladas de CO<sub>2</sub> por habitante de Euskal Herria, por encima de la media de la UE (8,6 t) y el mundo (6,6 t); además, el 10% más rico del mundo produce la mitad de las emisiones totales.

Por todo lo anterior, exigimos a los miembros de la COP26 y a los Gobiernos estatal, autonómicos y locales que abandonen la comodidad de las declaraciones de emergencia climática y que pasen a la acción. Es urgente planificar democráticamente la reducción del consumo de materiales y energía de forma socialmente justa. Para ello, proponemos las siguientes medidas:



- Abandonar la obsolescencia programada y el consumo de usar y tirar. Fomentar la reparación y los empleos asociados.
- Asegurar el acceso de toda la población a ingresos y servicios públicos básicos de forma sostenible (sanidad, educación, vivienda, cuidados, energía, alimentación, aire y agua limpios...).
- Reducir la jornada laboral, repartir el empleo e impulsar el reparto de los trabajos no remunerados pero imprescindibles para la vida.
- Promover políticas para la movilidad sostenible, fomentando los desplazamientos activos a pie, en bicicleta y en transporte público, y reduciendo los desplazamientos individuales e innecesarios, para no aumentar la necesidad de carreteras.
- Potenciar el autoconsumo y las comunidades energéticas locales basadas en energías renovables.
- Acabar con las desigualdades mediante la redistribución de la riqueza y políticas fiscales progresivas.
- Dejar de subvencionar a las empresas que tienen la máxima responsabilidad en el cambio climático.
- Dejar de vender falsos milagros tecnológicos (hidrógeno, centrales nucleares de nueva generación, captura y almacenamiento de carbono...).
- Abandonar la senda del crecimiento económico. El capitalismo es la causa de la crisis climática, y no será la solución, aunque lo pinten de verde (greenwashing, industria 3.0, mercado de emisiones de CO2...).
- Priorizar absolutamente en la gestión de residuos la reducción, la reutilización, el reciclaje y el compostaje, renunciando a la incineración que, entre otras cosas, es una gran fuente de gases de efecto invernadero.

La emergencia climática, aunque sea una lucha global, necesita respuestas locales. De hecho, nos parece imprescindible llamar la atención sobre el hecho de que la situación de emergencia en la que nos encontramos tiene que ver con las políticas que se hacen aquí, en Euskal Herria, en materia de energía, de transporte, de residuos, de ordenación territorial, de biodiversidad, etc. Esas políticas profundizan en un modelo económico y social insostenible que agudiza la crisis climática y ecológica. En este contexto, es necesario exigir un cambio de dirección rotundo, en pos de una transición justa. Pero esa transición justa no se producirá si pilotarla queda en las mismas manos de quienes nos han traído hasta aquí, y eso es lo que pretenden las autoridades cuando, por ejemplo, ponen a empresas como Iberdrola o Repsol en primerísima línea de los candidatos a recibir los fondos europeos para la recuperación tras la pandemia.

No habrá transición justa sin una sociedad vasca activa que trabaje por ella. Por ello, con motivo de la COP26, colectivos y asociaciones de distintos sectores de Euskal Herria estamos tratando de organizar respuestas. Es necesario, en cada comarca, denunciar a las empresas y gobiernos que aumentan las causas de la emergencia climática, exigir cambios reales a las autoridades, y organizarse en el camino hacia otro modelo de sociedad. Hacer frente al cambio climático es un acto de justicia climática con las sociedades del Sur, a las que históricamente el Norte industrial y colonial les ha robado sus recursos, y un acto de solidaridad con las generaciones futuras.

**¡NO HAY TIEMPO, JUSTICIA CLIMÁTICA YA!**

